

**2021 DENBORALDIRAKO OKONDOKO UDAL-IGERILEKUETAKO
ERRENTAMENDUAREN ADMINISTRAZIO-KONTRATUAREN ESLEIPENA
ARAUTUKO DUTEN KLAUSULA EKONOMIKO ETA ADMINISTRATIBOEN
PLEGUA**

Lehenengoa.- Plegu honen helburua da Okondoko udal-igerilekuetako taberna-zerbitzuaren kontratua esleitzea. Udal-igerilekuetako tabernako ustiaketa-guneak taberna eta biltegia hartzen ditu barne.

****Aurten, segurtasuna eta osasuna bermatze aldera, COVID-19aren eraginez, igerilekuetako txartela dutenek bakarrik erabili ahalko dute taberna; hau da, zerbitzua ez da herritar guztientzat eskuragarri/libre egongo.**

Bigarrena.- Kontratistak ordaindu beharreko gutxieneko prezioa seiehun eurokoa (600 €) da. Eskainitako prezioa irailean ordainduko da, denboraldia bukatu ondoren.

Kontratua preziorik altuena proposatzen duen lizitatzailerari esleitu zaio; berdinketarik egonez gero, Okondon erroldatutako pertsonak izango dute lehentasuna eta, berdinketak jarraitzen badu, klausula sozialak aplikatuko dira.

Hirugarrena.- Kontratu hau udako denboraldian egongo da indarrean; hala, ekainaren 11 inguruan hasiko da, eta irailaren 12an bukatuko. Edonola ere, udal-igerilekuak irekita dauden egunekin bat etorriko da aldi hori. Aldeak ados egonez gero, kontratua urtebetez luzatu ahalko da; esleipendunak hala izatea nahi badu, 2022ko martxoaren 31 baino lehen eskatu beharko du.

Laugarrena.- Tabernaren ordutegia bat etorriko da igerilekuaren ordutegiarekin; hala, denboraldi osoan zehar 11:30ean irekiko da, eta igerilekuak itxi ondoren ere irekita jarraitu ahalko du, 22:00ak arte.

Bosgarrena.- Errentariak nahitaez erabili beharko du udal-igerilekuetan tabernarako esleitu den higiezina, instalazioen erabilera egokiaz arduratu beharko da eta bertako arauak betetzen direla bermatu beharko du.

Esleipenduna behartuta dago Udalak modu arrazoituan helarazten dizkion jarraibideak betetzera, betiere kontratuaren xedea eta zerbitzuaren interes publikoa kontuan hartuta.

Udalak higiezina adostutako erabilerarako erabiltzeko baldintzetan mantentzeko egin behar diren konponketak gauzatuko ditu eta horrek ez dio alokairua igotzeko

eskubiderik emango, kalteak errentariari egotzi ahal zaizkionean salbu.

Udalaren jabetzakoak diren eta esleipendunaren esku jartzen diren lokalak, instalazioak, tresnak eta gailuak baldintza bikainetan mantendu beharko dira, eta esleipendunak ordaindu beharko ditu horien konponketak, bai eta denboraldi bukaeran hautematen diren akatsak ere, betiere herritarren erabilera arruntetik eratorritako kalteak gainditzen badituzte.

Etengabeko koordinazioa egongo da udal-arduradunekin, eta egokitzen jotzen den informazio oro jakinarazi beharko die esleipendunak.

Seigarrena.- Aplikagarri zaizkion lan- eta zerga-xedapen guztiak bete beharko ditu, eta Udalak ez du inolako erantzukizunik izango hori betetzen ez badu.

Zerbitzua baldintza higieniko-sanitario egokietan eman beharko du, eta langileek elikagaiak manipulatzeko prestakuntza-ziurtagiria eduki beharko dute, beharrezkoa denean.

Zazpigarrena.- Behartuta dago altzariak eta instalazioak garbitzera, zaborra gaika biltzeko poltsak jartzera eta horiek lorategi eta askaldegietatik kentzera. Errentariak zerbitzua ustiatzeko instalatzen dituen materialak, altzariak, makinak eta elementuak dagokion araudiaren arabekoak izango dira. Harrizko mahaiak erabilera publikokoak dira, eta ezingo dira erreserbatu.

Esleipendunak instalazioa behar bezala funtzionatzeko moduan eduki beharko du igerilekuak irekitzeko aurreikusitako egunerako.

Zortzigarrena.-Udalaren kontura izango dira zerbitzua emateko behar diren argi- eta ur-gastuak. Horretarako, errentariak ezin izango ditu instalazioetako makinak edo elementuak konektatu edo lotu ekainaren 1a baino lehen, eta irailaren 30a baino lehen deskonektatu beharko ditu.

Bederatzigarrena.-Kontratu hau gauzatzearen ondoriozko betebeharrak eta istripu, kalte, lapurreta, eta abarretatik eratorritako erantzukizunak betetzen direla bermatzeko, errentariak dagokion aseguruia formalizatu beharko du.

Hamargarrena.-Udalak kontratua deuseztatu ahal izango du zerbitzuaren funtzionamendu txarragatik, betiere errentariari entzun ondoren eta interes publikoagatik komenigarria den kasuetan.

Hamaikagarrena.-Errentariak une oro bete eta betearazi beharko du COVID-19ari buruz indarrean dagoen araudia,

garbiketari, edukierari, distantzia sozialari, eta abarri dagokienez.

Hamabigarrena.-COVID-19aren egoera dela eta, terraza tokiz aldatuko da, eta tabernaren atzeko aldean jarriko. Horren xedea, erabiltzaileentzako espazio gehiago lortzeaz gain, bainatzeko eremua eta taberna bereiztea da, bainularien eta bezeroen arteko intimitate-falta ekidite aldera. Horrekin bi eremuetan daudenen interesak eta diskrezioa errespetatu nahi dira, genero-ikuspegiaren balioekin bat eginez.

Hamahirugarrena.-Eskaintza aurkezteko epea, 10 egun naturalekoa izango da, argitaratzen den egunetik hasita (2021/05/25).

.....JAUN/ANDREAK

(NAN:.....)

HELBIDEA:.....TEL.:.....)

,

Okondoko udal-igerilekuetako tabernaren
errentamenduaz jabetuta

ADIERAZTEN DU:

1.-Kontratazioa arautzen duten klausulen
plegua ezagutu eta onartzen duela.

2.-

.....eurok
o (.....€) prezioa eskaintzen duela
ustiaketaz arduratzeko.

3.-Udal-igerilekuetako tabernaren
errentamendua esleitzeko eskatzen duela
eskainitako zenbatekoan.

Okondon, 2021ekoren
.....(e) (a) n.

Sin.